

Jua baño goriago gelditu zan Matxalen'en arpegia.

—¿Idazki auei erantzutea nai al-dezu?

—Bai, andrea; baña neronek erantzungo diet berealaxe.

Au esan, apuftu bi idazkiak eta bota zituan beren zatiak sutara... eta Jaun-goikuak gabon dizutela.

URRUZUNO'TARR APAIZA.



USKURTZ-GAYAK

GOIZPARKI EDO EBANGELIUA

URTARILA - 7. GAËNEKUA



Euren menbian eguan, eta Jaun-Goikua ta gixonen aurian jakituris, adinez ta eskafez andi egiten zan.

Aldi atan: Umiak (Josu'k) amabi urte bete ebazala, eurek (Miren eta Joseba) Hierosolym'era igon ziran, jai-ekanduba zan lez.

Jai-egunak igarota, eurek bigurtzian, Josu Umia Hierosolym'en lotu zan eta bere gurasuak ezeben uafiu.

Bai baña, gixon-taldian egualakuan, egunbeteko bidia egin eben- eta senide-ezaunen artian billatuten asi ziran.

Baña aurkiitu ezabela Hierosolym'era biguiftu ziran bere bila.

Eta iru egun-buru aurkitu eben eleza edo tradonan jakintsuben artian jesaifita, batzutan eurei entzuten bestetzu- tan eurei ifarduten.

Eta entzuten eutsaen gustijak geldu edo mirariñula ego- zau bere jakiturijaz ta bere erantzunakaz.

Bera ikusijaz geldu ziran, eta bere Aneak esan eutsan: Seme ¿zegatik egin dok olan geugaz? Ara, eure afeak eta neuk onazez estu-lafi eure bila ifarduten gayuan.

Eta Bera'k erantzun eutsen: Eta ¿zer dala-ta neure bila ifarduten zenduben? ¿Etzekijen neure Afe'ren gauzeakaz ifardun bial dodala?

Eta eurek ezeben aditu esan eutsezan itzak (eurokaz ziaz esan gura eutsen gustija):

Eta eurekin Nazaret'era jatsi zan, eta euren menbian

eguan. Eta bere amek gauza gustijok bere bijotzan gorde- tan ebazan.

Eta Josu, Jaun-Goikua ta gixonen aurian, jakituriz, adi- ñez ta eskafez andi egiten zan.

JOSU AURARI

Zinismenaren izaf argi dizdiatzallea, duelarikan bere bidean zuzentzuallea, datoñ nere gogoa eztalpe ontara, jayo-beñi zauden askatxuaren onetara, ¡O Josu maiftia! donokiko Aurtxoa, nere ongi-nai ta maiftasunez gizondua.

Iru Bakaldun Deun diñu afkitzen, Zure ofietan auzpezturik ezkeintzak egiten...
¿Zer eskeñiko dizut ¡Josu Aurtxoa!
izanik ni ain beartsu, ain txiñoa?...
¡Maitiari maifez erantzun beaf zayo!
¡Tori nere biatza! ¡Zeureztat egundaño!

Maifez begiratzen nazu gozotasunez heterik, Zure eskutxu ongilliak nigana zabaldurik... baidirudi nai dezula nik zerbait eskatzia...
¡O Auf maiftagari donoki-ludien jabia!
¿Nola nik Zuri ez-eskatu gauza guziak Zeure eskuan ba-difuzu.

Gorde zazu, Josu, nere biotza Zeuria beti nai du izan, eta;
gorde ifatzuz gizon ta eñiak Zeure odolakin diñuzu erosiak;
bañan gorde zazu'era berezi baten nere Abehñ Euzkadi jafen dizut eskatzen!

Tene.

Aizta bijak

Imanole'k eta Eduñe'k, euren oc zuri txikijetan etzun- da, jarduten eben olan:

—¿Uste ete-don etofiko dozala?

—Etxakiñat. Eurek etxonez ume okefak mañe-ixaten.

—Eta ni okef-okefa ixan non, ¿ezton? Etxausten par- katuko.

—Parkatu bai, baña...

—Baña ¿zer?

—Eskatu biarfo dautsen.

—Eta ¿uleftuko ete-yausten? ¿euzkeraz ete-yakiñe?

—Eurek uleftzen yone umiak esaten yautsenagun gus- tija.

—Eta auferantzian ona ta zuña ixango nonala esango ba-yautsenat, uste ete-don...

—Ziuf nayagon, eta neuk irekin batera eskatuko ya- tsenat.

Esku polifak baturik, asi ziran otoiz.

Gau atan Bakaldunak etofiko ziran; baña onak diran umientzat bakafik, eta Eduñe etzan ona ixan. Bere aiz- teari tximuf-egin eutsen, eta neskamiari aginka. Eta go- muta onek negaf eragin eutsosen egun atan. Urte gustije- tan Bakaldunak bitxi polifak ekafi dautsoez; baña on- tan...! Ofañño bere parkamena eskatu dautse, ta... luak aiften dau gozaro.